

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko martxoaren 3an hartutako erabakiaren laburpena: ekintzai- leentzako beken udal programaren 2023ko deialdia onestea

BDNS (Identif.): 680833

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/680833>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>), baita Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ere (<http://www.vitoria-gasteiz.org>).

Lehena. Onuradunak

Pertsona fisikoak, adinez nagusiak, Vitoria-Gasteizen erroldatuak, Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda ez daudenak, beren kabuz ekonomia-jarduera bat gauzatzen ari ez direnak, Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresa bat sortzeko ekimena garatzen ari direnak, aurreko urteetan beka-onuradun izan ez direnak.

Bigarrena. Xedea

Vitoria-Gasteizko udalerriko ekonomia-jarduera sustatzea, ekintzaileen kulturari laguntza emanez.

Konkurrentzia baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa.

Hirugarrena. Oinarriak

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022eko urriaren 14an onetsitako oinarri orokorrak 2022ko azaroaren 17ko ALHAO, 127. zenbakia, eta 2023ko martxoaren 3ko ohiko bilkuran onetsitako berriazko oinarriak.

Udalaren webgunean www.vitoria-gasteiz.org eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Dirulaguntza deialdi honek 90.000,00 euroko zuzkidura du, 2023ko udal aurrekontuko 0821.4331.489.49 partidan erabilgarri dagoen saldoaren kontura. Bakoitzak jaso dezakeen kopuruak muga hauek izango ditu 2.500,00 euro 90 puntu edo gehiago lortzen dituzten eskabideetan; 1.000,00 euro gutxienezko puntuazioa (65 puntu) lortzen dutenetan. 66 puntutik 89ra bitartean lortzen dituzten proiektuei proportzio lineala aplikatuko zaie, bekaren kopurua kalkulatzeko.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Argitaratzen delarik, eskabideak aurkezteko bi epe izango ditu deialdi honek:

Lehen epea, deialdiaren laburpen hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 2023ko ekainaren 15era artekoa.

Bigarrena, 2023ko ekainaren 16tik irailaren 29ra artekoa.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 3an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
IGNACIO CEPEDA CRESPO*